

03/2014 UDALEKO OSOKO BILKURA

2014KO MARTXOAREN 31N IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Estanga Lasa

ZINEGOTZIAK:

Maialen San Sebastian Kortajarena
Izaskun Jáuregui Saizar
Aitor Gurrutxaga Aranzasti
Aratz Luisa Urkola
Miren Josune Eizmendi Manterola
Mikel Ayerbe Gallurralde
Kepa De la Iglesia Sánchez
M^a Carmen Egurza Salaberria

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2014ko martxoaren 31n arratsaldeko seiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; eta Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

1.- 2014KO OTSAILAREN 24AN OSPATURIKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2014ko urtarrilaren 24an ospaturiko akta irakurri eta aho batez onartuak izan dira.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2014KO OTSAILAREN 19TIK MARTXOAREN 14A BITARTE, 67 ZENBAKITIK 132 ZENBAKIRA BIAK BARNE.

2014ko otsailaren 19tik martxoaren 14a bitarte, 67 zenbakitik 132 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

3.- “FIARE, BANKA ETIKA”-rekin HITZARMENA.

Ikusirik, FIARE, banku jarduera etikorako proiektua da, eta gizartea eragin eraldatzailea duten jarduera kolektibo bidez itxuraldatzea lortu nahi duen proposamena, hartarako, gizakia gure gizartean eta munduan garatzearen aldeko gizarte, ekologi eta kultur proiektuei eutsita.

Gainera lortu nahi du herritarrei aukera ematea haien aurrezkien bidez halako jardueri laguntzea. Herritarren eta gizarte erakundeen eskuetan dagoen banku bat.

Alkate jaunak, FIARE proiektuaren euskal sarearen ekintzak bultzatuz, Udalak lankidetzatza hitzarmena 600,00 eurokin onestea proposatzen du.

Partaideek aho batez onesten dute:

Lehena.- FIARE proiektuaren aldeko elkartearekin lankidetzatza hitzarmena onestea, akta honi 1 eranskin modura doan dokumentuaren arabera. Era berean aipaturiko elkarteari 600,00 euro emanaz,

Bigarrena.- Pedro M^a Estanga Lasa alkateari edo bere legezko ordezkariari ahalmena ematea akordio hau burutzeko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

4.- FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK ETA ANOETAKO UDALAK INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEKO IZENPETU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Foru Aldundiko ogasun eta finantza departamentuak eta Anoetako Udalak informazioa elkarri lagatzeko izenpetu beharreko lankidetzatza hitzarmenaren espedientea ikusi da.

AOTaren txostena ikusi da.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehena.- Foru Aldundiko ogasun eta finantza departamentuak eta Anoetako Udalak informazioa elkarri lagatzeko izenpetu beharreko lankidetzatza hitzarmena eta ondorengo eranskinak onestea:

A1 “Anoetako Biztanleen erroldako datuak”

A2 “IHZren errekaraguaren kudeaketatik eratorritako datuak, etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko bizilekua ez denean”.

A3 “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren datuak”.

A4” Trakzio mekanikoko gaineko zergaren kudeaketatik eratorritako datuak”, akta honi 2. eranskin modura eranstean diren dokumentuetan adierazten den modura.

Onarpena baldintza honetan egingo da: 2014ko martxoaren 3ko (41.zk) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak eta 2014ko martxoaren 31ko (61. zk.) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako akatsen zuzenketak. Eta ohartarazi dute, Anoetako Udalak Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza departamentuari lagatzeko datuak erabili ahalko dituela, azken honek, bere funtzioak betetzeko bakarrik eta Lege mailako arauen batean aurreikusten bada datuen erabilera hori.

Bigarrena.- Pedro M^a Estanga Lasa alkateari edo bere legezko ordezkariari ahalmena ematea akordio hau burutzeko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

Hirugarrena.- Akordio honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko ogasun eta finantza departamentuari ematea.

5.- TOLOSALDEA GARATZEN ELKARTEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA, AKZIOEI BURUZKOA:

- LEHENTASUNEZKO EROSKETA- ESKUBIDEARI UKO EGITEA
- ANOETAKO UDALAK TOLOSALDEA GARATZENEN DUEN KAPITALA ZABALTZEA ONARTZEA.

Tolosaldea Garatzenek aurkezturiko dokumentazioa ikusi da.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehena.- Administrazio kontseiluak, 2014/03/13an osatutako txostenean, 0,1 euroko balio nominala duten 62.830 akzio berri jaulkiz, SEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HIRU EUROko (6.283,00) kapital zabalkundea proposatu du, eta hori dela eta, Anoetako Udalak lehentasunezko erosketa-eskubidea erabiltzeari uko egitea erabaki du, Kapital Sozietateen Legeko 304 artikulua aurreikusten duenaren arabera.

Bigarrena.- Pedro M^a Estanga Lasa Anoetako Udaleko alkate-lehendakaria izendatu, sozietateak 2014ko maiatzaren 12an ospatuko duen Batzar Orokorrean parte har dezan eta dagozkion erabakiak har ditzan, helburu honekin: Tolosaldea Garatzen administrazio kontseiluak 2014/03/13ko txostenean proposatutakoaren arabera, guztira SEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HIRU (6.283,00) euroko balioa duten 0,1 euroko balio nominalako 62.830 akzio berri jaulkiz burutuko den kapital zabalkundeari dagozkion 60 akzio berri bereganatu eta harpidetzea, 6 euroko balio nominala dutenak guztira.

6.- TOLOSALDEKO PROIEKTU ESTRATEGIKORAKO FUNTSA, JEZ, SORTZEA ETA EKARPEN EKONOMIKOA ONARTZEA.

Tolosaldea Garatzeneko gerenteak, 2014ko urtarrilaren 15ean “Eskualdeko proiektu estrategikorako funtsari” buruz eginiko txostena ikusi da.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehena.- Udalak Eskualdeko Proiektu Estrategikorako Funtsa sortzeko ekimenarekin bat egin du, eta bera babestu eta ekonomikoki hornitzeko konpromisioa hartu du, Tolosalderako estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bideragarri bihurtzeko baliabide berri bat sortuz eta, horrela, eskualdera eta, ondorioz, Anoetako udalerrira ere enplegua eta aberastasuna sustatzeko bide berriak irekiz.

Bigarrena.- Eskualdeko Proiektu Estrategikorako Funtsa hornitzeko 2014, 2015, 2016 eta 2017ko aurrekontuetan aurreikusiko du partida ekonomiko berezi bat, Tolosaldea Garatzen bideratutako diru-laguntza bidez. Partida ekonomiko hori, Anoetako Udalak hurrenez hurren 2013, 2014, 2015 eta 2016 ekitaldietan Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga kontzeptupean kobratutako kopuru totalaren % 10a izango da.

Hirugarrena.- Anoetako Udalak Tolosaldea Saretzen eskualde mailako parte-hartze sistema iraunkor eta integralean aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartzen du, eta herri mailan ikuspegi sozial eta ekonomiko batetik garapena sustatzeko lagungarri izan daitezkeen eragileak bertara erakartzeko ahalegina egingo du, Eskualdeko Proiektu Estrategikorako Funt sarearen erabilpenari zilegitasun eta eraginkortasun handiagoa emanez.

7.- ANOETAKO UDALA ETA ORBINOX, S.A ENPRESAREN ARTEKO HITZARMENA, JABARI PUBLIKOKO HAINBAT PARTZELA ERABILER PRIBATUA IZAN DEZATEN.

Ikusirik Orbinox S.A merkataritza entitatearen izen eta ordezkartzan Joseba Azurmendi Zabaleta jaunak aurkezturiko eskaera, Anoetako AASS-ko area UE 8/9 an kokatua dagoen jabari publikoko partzelaren okupazioa eskatuz. Justifikatzen duen memoria eta planoak atxikitzen dira.

Kontuan harturik hurrengo txostenak:

- Raimundu Mendiburu Abad arkitekto aholkulariaren 2014ko urtarrilaren 31 datako txostena.
- Andres Oyarbide Antia udal aparejadorearen 2014ko otsailaren 26 datako txostena.
- Udalak eskaturiko, Teodoro Cacho Echeverria- ren 2014ko otsailaren 3 datako txostena.

Lehena: Anoetako Udala eta Joseba Azurmendi Zabaleta jaunaren (Orbinox enpresaren ordezkartzan) artean eginiko emate hitzarmena onartzea, jabari publikoko hainbat partzela pribatuki erabiltzeko. Akta honi atxikitzen den agirian ezarritako baldintzetan (III. Eranskina).

Bigarrena: Pedro M^a Estanga Lasa jaunari, edo legalki ordezkartzen duenari, sinatzeko baimentzea hitzarmen hau formalizatzeko beharrezko diren agiri publiko zein pribatuak.

8.- ESPAINIAKO BANDERAREN ERABILERA DELA ETA, GOBERNUAREN EAE-KO ORDEZKARIAK BIDERATUTAKO ERREKERIMENDUAREN AURREAN UDALA GELDIRIK EGOTEARI BURUZ EMANDAKO SENTENTZIEN BERRI EMATEA. SENTENTZIA HORIEK EMAN DITUZTE ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN DONOSTIAKO 3. EPAITEGIAK ETA

EAE-KO AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAK.

Korporazioak izan du 67/2013 sententziaren berri, Administrazioaren Auzien Donostiako 3. Epaitegiak emandakoa, Arrunta: 381/2012.

Errekurritutako jarduna: gobernuaren EAeko ordezkariak Espainiako banderaren erabilpena dela-eta bideratutako errekerimenduaren aurrean udala geldirik egotea.

“FALLO.-

Primero.- Que debo desestimar y desestimo la causa de inadmisibilidad invocada por la representación procesal de la demandada.

Segundo.- Que debo desestimar y desestimo el recurso Contencioso-Administrativo deducido por la presentación procesal de la actora.

Tercero.- Sin imposición de costas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 139 de la LJCA”.

Era berean, Korporazioak 49/2014 sententziaren berri ere izan du, EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 407/2013 apelazio-errekurtsoa, Estatuaren Administrazio Orokorrak aurkeztutako 67/2013 aipatutako sententziaren aurkako apelazio-errekurtsoa jartzeko eta formalizatzeko idazkiaren ondorioz etorri dena.

“FALLO.-

Que debemos estimar y estimamos el Recurso de Apelación formulado por la ADMINISTRACION GENERAL DEL ESTADO contra la Sentencia nº 67/2013 dictado el 18 de marzo de 2013 por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de los de San Sebastián en el Procedimiento Ordinario nº 381-2012 y, en consecuencia, revocándola, estimamos el recurso Contencioso-Administrativo.

Las costas procesales de la instancia se imponen a la parte apelada y cada litigante soportará las por ella causadas en la Apelación”.

Emandako epaia ikusita, Anoetako Udalak Espainiako bandera jarri beharko du, iraunkorki, udaletxearen kanpoaldean eta udaletxe barruko lehentasunezko toki batean, udalbatza-aretoan zehazki, urriaren 28ko 39/1981 Legeak agintzen duenaren arabera.

9.- 2014KO ABERRI EGUNERAKO UDALBILTZAREN MOZIOA.

Bildu taldeko zinegotzia den Maialen San Sebastian Kortajarena andreak, Udalbiltzak aurkezturiko ondorengo mozioa irakurtzen du:

“2014ko Aberri Egunerako Udalbiltzaren ohiko osoko bilkuretarako mozio proposamena.- Euskal Herritarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu.- Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehinegoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne,

Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratorzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estatuturik gabeko herri bat da, eta gu, Euskal herritarrok gure borondatearen gainetik, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerrriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931.urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herriko 1998.urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI.mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen.

2014.urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo “gure esku dago” bezala, Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak edo itxaropentsuak izatera bultzatzen gaituen Independentziari buruzko Etxarriko herri kontsultak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herriaren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, Anoeta herriko udalak ohiko osoko bilkura honetan, hurrengo adierazi nahi du:

1.- Euskal Herritarrek garela adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan Euskal ikurrak jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Zer garen gaur, iragana ezagutu gabe oso zaila delakoan, aitzineko zein garaikidea den oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala ere, iragana baino gehiago, oraina eta –batez ere– etorkizunari erreparatu nahi dugunez gero, kultur, hizkuntza eta identitate aldetik anitz eta aberatsa sortzen ari den Euskal Herri berri honi so egiten diogu. Horregatik, atxikimendu libreak, oinarriturik, Herritartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatu, eta ekimen bateratua, ofiziala eta eraginkorra sortzeko konpromisoa adierazi nahi dugu.

4.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babes adierazi nahi diogu. Erabakitze eskubidearen ariketa demokratiko praktikotzat jotzen dugu eta zentzu honetan bere zilegitasuna aitortu nahi dugu.

5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, “Gure esku dago” herri ekimenak ekainaren 8rako antolatutako duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, “Gure esku dago” herri dinamika erabateko babes adierazi nahi diogu.

Euskal Herrian 2014ko martxoaren 31ean”.

Irakurritako mozioa bozketara eramanez ondorengo emaitza lortzen da:

- ALDEKO BOTUAK: **ZAZPI** (Bildu talde politikoa)
- AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**
- ABSTENTZIOAK: **BI** (EAJ talde politikoa)

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, aurkezturiko mozioa onesten da.

10.- GALDE – ERREGUAK

Galde-eskeen aldian, Kepa De la Iglesia EAJ alderdiko bozemaileak galdetu dio alkateari ea noizko aurreikusten den 2014ko udal aurrekontuaren zirriborroa izatea.

Akateak erantzun dio aurrekontua prestatzeko dokumentazioaren zati bat idazkariari eman ziola, eta hitza eman dio honi.

Idazkariak adierazi du hilaren hasieran eman ziola alkateari gastuen 1. kapituluko aurreproiektua, baina ezin izan duela Aurrekontuaren gainerakoarekin jarraitu eguneroko lan-kargarengatik; dena den, nabarmendu du ahal bezain laster helduko diola berriro aurrekontua prestatzeari.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko seirak eta berrogeita hamar minutu direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.